



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017KO ABENDUAREN 1EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jesus Peñagarikano Labaka
Itziar Arratibel Imaz

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-
Echave

Ibarran 2017ko abenduaren 1ean udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2017KO AZAROAREN 17KO AKTAREN ONARPENA

2017ko azaroaren 17an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2017ko azaroaren 17an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2017KO AZAROAREN 22AN BURUTURIKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

Gaiak aztertu ondoren, 2017ko azaroaren 22an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpenetan Tokiko Gobernu Batzordeak ez duela ezer erabakitzeko adosten da.

HIRUGARRENA:

3.-2017KO AZAROAREN 21EAN BURUTURIKO KIROL BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK

3.1 SPINING-EKO MUSIKA EKIPOA EROSTEA

Spining-eko musika ekipoa zaharkitua gelditu da eta ez da batere praktikoa (ezin da ordenagailurik konektatu, pitch-ik ez dut...). Hori dela eta, aurrekontuak eskatu dira eta honakoek aurkeztu dituzte:

Insa3 Sistemas: 1.285,00 € (BEZ kanpo)

Dardara: 1.084,00 € (BEZ kanpo)

2017ko azaroaren 21eko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Spining-eko musika ekipoa erosteko Dardara enpresak egindako eskaintza 1084,00 €ko aurrekontuarekin, BEZ kanpo.

BIGARRENA.- Aipatu diru-kopurua 622.342.00.04 diru partidatik ordaintzea

3.2 ARETO FUTBOLEKO PORTERIETARAKO SAREAK

Areto futboleko porterien sareak puskatuta daude eta beroriek berritzea komeni da. Aurrekontuak eskatu dira eta hiru aukera hauek daude:

Ranking: 3 mmko 2 joko 60,94 € (Bez barne)

112

GB 20171201



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kirol aukera:	3 mmko 2 joko	93,56 € (BEZ kanpo)
	4 mmko 2 joko	115,28 € (BEZ kanpo)
ELKsport	3 mmko 2 joko	47,87 € (BEZ barne)

2017ko azaroaren 21eko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA- Erostea ELKsport enpresari bi sare joko 47,87 €ren truke BEZ barne.

BIGARRENA.- Aipatu kopurua 622.342.00.04 diru partidatik ordaintzea

3.3 TAPIZEN KONPONKETA

Belabieta Kirol Elkarteak erritmika saioak frontoian egin ahal izateko, Udalak tapiz batzuk erosi zituen orain urte batzuk.

Tapiz horiek frontoian daude eta berori erabiltzen duten guztien esku daude, ez baitago tokirik giltzapean gordetzeko.

Edozein pertsonak erabili dezakenez frontoia, edozein ibili daiteke tapizetan eta ondorioz, tapizen bat puskatu egin da.

Hori dela eta, Belabieta kirol elkarteak berorien konponketarako aurrekontua helarazi digu:

Ortiz tapizgintza eta zaharberrikuntza 121,00 €

2017ko azaroaren 21eko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Ortiz tapizgintza eta zaharberrikuntza enpresak aurkeztutako 121 €ko aurrekontua BEZ barne.

BIGARRENA.- Aipatu kopurua 212.342.00.00 diru-partidatik ordaintzea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA

4.- GALDERA ETA ESKAERAK

4.1 UDAL ARTXIBOAREN XAHUKETAREN ONDORIOZ ARTXIBORAKO TRESNA INFORMATIKOA BERRIZTU

Ereiten enpresak Ibarra artxiboaren xahuketa lanean aurrera doa eta artxiboaren berrantolaketa egiten hasiko da laster. Udaleko tresna informatikoa, Knosys delakoa, zaharkitua dago eta postubakarrerako da. Honek arazoak sortzen ditu: kontrolatu gabeko informazioa bilatzeko arazoak, informazioa erabiltzeko arazoak...

Ereitenek tresna informatiko berria ezartzea aholkatzen du: software aske batean programatzea eta ez lizentziapeko programa bat. Horrela ondoren administrazio elektronikoarekin zerikusia duten programekin bateragarria izan dadin artxiboaren programa. Modu honetan nonahitik lan egin daiteke programa honekin eta erabiltzaile maila ezberdinak ahalbidetuko liritezke eta herritarrek ere informazioa ikusteko aukera izango lukete.

Ereitenek programa espezifiko egiteko informatiko espezializatu batzuen kontaktua eman dio Ibarra Udalari eta programaren kostua 3.700 euro izango direla aurreratu digute.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamar direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut